

# 74.

zenbakia

2026ko maiatza

debaldeko alea

[www.kotarro.eus](http://www.kotarro.eus)

# kotarro

## Garean-Jarduerak

### ETA 10EAN PLAZAN

Maiatzak 22 eta 29  
18:10 jolasak Santiago plaza

### TXOKOLIPUINAK

Maiatzak 28: Ane Gebara  
17:30 Alfonso Ugarte aretoa

### LIZARRAN KANTUZ

Maiatzak 30, ekainak 27  
Baxe Nafarroa kaletik

### MENDIAN & KULTURAZ MINTZA

Ekainak 6, Errezu zirkularra  
Ekainak 13, Irulegi erakusketa

### SAN JOAN SU TTIKIA

Ekainak 25: ipuin kontaketa  
musikarekin  
19:30 Ur gazia putzuaren ondoan

### MINTZAKIDE

Eman izena: AEKn, [garean@gmail.com](mailto:garean@gmail.com)  
edo 672050155

### IGBO

Irakurri, Gozatu,  
Bertan erosi eta Oparitu  
Maiatzak 31 arte liburutegian  
irakurketa-fitxak betetzeko  
eta ekaina osoa  
beherapenak baliatzeko

### BESTELAKOAK

**Bisita gidatua**  
Maiatzak 16, 17:30  
Caro Baroja museo etnologikoa  
Maiatzak 17, 12:00  
Karlismoaren museoa: 'Irudikapenak'  
Ekainak 14, 12:00  
Karlismoaren museoa: 'Irudikapenak'

### Liburuaren eta estanparen eguna

Maiatzak 16  
Santiago plazan

### AEKko ikaslearen jaia

Maiatzak 21, Lizarra  
Mintzodromoak, bermuta, Bolbora  
kontzertua

### Txosna txikiak

Maiatzak, 22 eta 23,  
Lizarra frontoiko plazan

### Baserriko uzta

Maiatzak 24, Lezaun upategia  
agroekologia eta Ines Osinaga  
kontzertuan.

## Gareanen dimentsioa(k)



*Dimentsioa, kontzeptu matematiko eta fisikoa izateaz gain zerbaiten neurria edo tamaina ere ematen digu. Gainera, hedaduraz, garrantzia edo munta ere adieraz dezake. Beraz, erreportaje honetan Garean elkarteari neurriak hartuko dizkiogu, euskararen neurrira egindako jantzia.*

Datorren urtean Garean Euskaldunon Elkarteak 20 urte beteko ditu. Bi hamarkada hauetan proiektu ugari sortu dira elkartearen babesean eta haren ekimenez. Horietako batzuk, Berri Txarrak parafraseatuz Jaio.Bizi.Hil, baina beste batzuek betiereko dirudite: Txokolipuinak, Lizarran Kantuz, Kotarro aldizkaria, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoaren urteroko hitzordua... Eta hona lehen dimentsioa edo neurria: **denbora, ia 20**

**urte.** Bi hamarkada euskaraz egitearen alde Lizarran.

Beste dimentsio bat une honetan **martxan diren proiektuak** dira. Arestian esan bezala, haurrei zuzenduriko proiektuak daude: Txokolipuinak hileroko ipuin saioak, *Eta 10ean plazan* ostiraletako jolasak, *Eta 10ean plazan PLUS* (LH4-6 adineko haurrentzat), aldiari aldiari ikuskizunak (esaterako, pailazoaren urteroko ikuskizuna, azaroko



*Begizur* magia saioa Gure Hizkuntzan, niniendako ipuin-kontaketa musikatua otsailean).

### 2025eko irailetik 2026ko abuztura bitarte, Garean ikasturte bat

Ondoko lerrootan ikasturte bakar batean Gareanek egindako lanaren *spoiler* bat egingo dugu. Lehenik eta behin, eta soil-soilik kultur eta aisialdiko ekitaldi zehatzei erreparatuz gero, urte bakarrean:

- Osotara heldu zein haurrentzako 52 kultur edo aisialdi hitzordu antolatu(ko) ditu Gareanek.
- 2.600 ikusle aurreikusten dira (1.600 haurrak, 700 helduak eta 300 Irrintzi txapelketa).

### Familiantzako kultura eta aisialdia: 34 ekitaldi

Gehien-gehienak *Eta hamarrean plazan* 18 saioak eta Txokolipuinak programa beteranoko 8 ipuin kontalaria izan dira. Izan ere, ekainera arte luzatuko ditugu ipuinak saio oso berezi batekin: San Joan Su Ttikia ur gazia putzuan. Horiekin batera, festa eta festaurrekoetan lauzpabost jarduera (txosnaguneari baime-na ematearen arabera) eta, azkenik, noizbehinkako ikuskizunak: *Begizur* magia saioa urrian, *Zerua lapurtu dute* pailazoan ikuskizuna otsailean eta *Urtaroz urtaro* niniendako ipuin-kontaketa musikatua.

Finantziarioari dagokionez, pailazoan ikuskizuna kenduta (sarrerekin ia autofinantzatzen baita), 8.300 euro inguruko gastua aurreikusten da eta gurasoek osotara 650 euro ordainduko dituzte.

Beraz, nola ordaintzen dira familientzako ekitaldiak? Aurrena, jarduera antolatzeko boluntarioen lanari esker gastua dezente murrizten da, bestalde Garean elkartearen bazkideek 72 euroko urteko kuota jartzen dute eta, azkenik, elkartearen administrazio-lan boluntarioarekin jarduera batzuek Euskara-bidearen edo Udalaren dirulaguntza jasotzen dute. Hori gabe, modu bakarra legoke jarduera hauek antolatzeko, gastua familien gain geratzea.

### Helduentzako kultura eta aisialdia: 18 ekitaldi

Horien erdiak Lizarran Kantuzen saioak eta festetako irteera izan dira. Kantuzaleen irteeraldiez gain: Gau Beltzaren abaroan urrian *Beren izenez* umore beltzeko antzerki laburra, *Olentzero nora zoaz?* mintzaldia, Korrika garaian *Tabernaria* antzerki laburra, Iorarrera Mendian Mintza irteera eta *Lizarra euskararen begietatik* bisita gidatua, IGBO irakurketa kanpainaren barruan maiatzean *Bizi sintetikoak* poesia eta musika elektronikoa eta Sarrionandiaren *Egoerak eta liburuak* solasaldia eta, amaitzeko, mendi eta kulturaz mintza irteera berriak ekainean.





Kasu honetan, ekimen batzuk guztiz boluntarioak izan dira (Kantuz, Mendian-mintza, bisita gidatua, Irrintzi txapelketa), beste batzuk Udalak zuzenean ordaindu ditu (*Beren izenez, Olentzero nora zoaz?, Bizi sintetikoak* eta Sarrionandiaren solasaldia) eta beste bat Gareanek osorik: *Tabernaria* antzerki laburra.

### Ekitaldietatik haratago, programak eta ezohiko proiektuak

Programa batzuk ekitaldietan oinarritzen badira ere, beste batzuk ezin dira horrela sailkatu. Esaterako, Gareanek honakoak antolatzen ditu: eskualdeko Mintzakide proiektua, Kotaroren komunikabideak (aldizkaria, webgunea, sare sozialak, youtube), whatsapppeko familientzako kanala, liburuen eta liburuxken argitalpena (*Dorian Grayren erretratuak*, Lizarraldeko euskararen hiztegia, Kantutegiak...), audio-ipu in ilustratuak, IGBO irakurketa sustatzeko kanpaina, Eusfera...

### Elkarlanaren dimentsioa

Garean ez da beste kolektibo eta gizarte-mugimenduengandik at bizi. Batetik, elkarteak gidatzen dituen hainbat ekitaldik ezinbesteko kolaboratzaileak ditu, esaterako, liburu-denda eta liburutegiak IGBO kanpaina, Bota Peña helduentzako hainbat ekitalditan, Ikastola eta Remontibal haurrentzako jardueretan, AEKrekin adosten dira helduen jarduerak, Mintzakide egitasmoa udal eta eragile ugarirekin antolatzen eta finantzatzen da...

Ez hori bakarrik, Gareanek Korrika eta Euskaraldia batzordeetan parte hartu du eta euskarazko aisia antolatzen duen orori (Los Llanosen zinema, Bota Peña, Bertso elkarte, Karlismoaren museoa...) aktiboki laguntzen die euskaraz eskaintzen dituzten ekitaldiak iragartzen eta sustatzen.

### Barne administrazioaren dimentsioa

52 ekitaldi eta bestelako proiektu eta ekimenak gauzatu ahal izateko bulego lana behar da: lokalak bilatu, azpiegitura lortu (argindarra, mahaiak, aulkiak, proiektorea...), baimenak eskatu, finantziarioa eskuratu, kolektibo eta erakundeekin harremanak egin, ekitaldia iragarri eta sustatu, izen emateak kudeatu, kartela egin, argazkiak atera... Horrek administrazio-lanak eskatzen ditu, boluntarioen orduak beraz.

### Dimentsio ekonomikoa

2025 ekitaldi ekonomikoa Gareanek 30.000 euroko aurrekontua izan zuen, eta gasturik handiena, bi heren, Mintzakide proiektuak, pailazoen ikuskizunak, «*eta hamarrean plazan*» jolasek eta festetako Kantuz bazkariak hartu zuten. Esan beharra dago ikuskizuna zein bazkaria ia autofinantzatu egin direla, baina, eta beste guztia?

Osozara, elkartearen defizita oso txikia izan zen, 500 euro ingurukoa. Izan ere, batetik, instituzio publikoek finantziarioaren %50 inguru eman zuten (Euskarabideak %29, Lizarrako Udalak %15 eta beste entitate publiko batzuek %6) eta, bestetik, ordaindutako txartel, izen emate edo sarrerekin %30 ordaindu zen, elkarteko bazkideen kuotekin %15 eta salmenta gutxi batzuekin beste %3 (Kantutegiak, Euskaraldia materiala).

Horretaz gain, helduentzako zenbait jardura Gareanek antolatu arren fakturak Udalak bere gain hartu ditu zuzenean, zehazki helduentzako lau jardura eta haurrentzako bat. Hortaz, arestiko paragrafoan aipatutako aurrekontu eta ehunekoetan ez dute islarik.



# Galderak kintoei

*Urtero, urteko «kintak» –28 urte inguruko gazteek osatua– Puyko festaren inguruan ospatzen den Gazteriaren festa antolatzen du. Aurtengo kintako hainbat ordezkariarekin hitz egin dugu.*



Nerea Garin Murguialday



Iñaki Azanza Atondo



Álvaro Galán Santesteban

## **Zergatik erabaki zenuten Kintan sartzea? Zer esannahi du zuentzat bertan egoteak?**

Belaunaldi-erleboia sustatzeko eta gazteek antolatutako eta gazteentzat pentsatutako festak izan daitezten. Antolakuntzak dakarren erantzukizuna eta konpromisoa sentitu dugu, hainbat kuadrillatako ki-deak izanik, bakoitzaren egoera pertsonalak kontuan hartuta, antolaketa konplexua izan bada ere, aldi berean oso aberasgarria izan da.

## **Lizarrako Gazteriaren festetara etorrita, ezinezkoa da gazteentzako programazio perfektua lortzea, baina, horra bidean, zein irizpide edo bide-orri jarraitzen duzue ekintzak antolatzerako orduan?**

Aurreko urteetan egindako jardueretan pixka bat oinarritu gara, gure ekarpena egiten saiatuz eta, gazteen artean harrera ona izango dutela uste dugun jarduerak proposatuz. Hauen artean bakarriketa edo txaranga, eta horiek aurrera eraman ahal izateko geneuzkan baliabide material, ekonomiko eta giza baliabideetara egokitzen saiatuz.

## **Lizarran gazteentzako dagoen aisialdiari dagokionez, nola ikusten duzue egoera? Zein indargune eta hutsune identifikatzen dituzue?**

Badira adin-talde jakin batzuk, hala nola aurre-ne-rabeak, gure ustez ezin dituztenak beren adinari eta

interes-kezkari egokitutako zerbitzu eta jarduerak behar bezala gozatu. Era berean, jarduera soziokulturalak garatzeko espazio egokien falta dagoela uste dugu. Askotan, instituzioen aldetik —bereziki Udalaren aldetik— pedagogia handiagoa ere falta izaten da, jarduera horiek egin ahal izateko aurrez beharrezkoak diren izapideei, baimenen eskaerari eta beste-lako eskakizunei dagokienez.

## **Gazteen artean euskararen erabilera bultzatzeko, zer egingo zenukete?**

Gazteei zein hain gazteak ez diren pertsoneri hizkuntza gerturatzeko jarduerak egiten saiatzen gara. Kasu honetan, adibidez, bakarriketa bat antolatu dugu: komikoak, bakarriketak egiten ditu bai euskaraz bai gaztelaniaz. Horrez gain, baliabide material eta ekonomiko gehiago izango bagenitu, beste mota bateko jarduerak ere antolatzea gustatuko litzaiguke, hala nola antzerkia edo bestelako proposamen kulturalak. Bestalde, egiten dugun komunikazio guztia —sare sozialetan zein kartelgintzan— bi hizkuntzetan egiten dugu, horrela herritar guztiei hurbiltzeko.

## **Zein da Udalarekin harremana?**

Burokraziaren, administrazio-isiltasunaren eta aurrez abisatu gabe gure aurka egindako jardueren ondorioz sortu da nolabaiteko tirabira, hori guztia komunikazio eskasaren emaitza izan delarik (esate

baterako, eszenatokia kentzearen kasuan edo inauteriei buruz egunkarian argitaratutako artikuluan, besteak beste).

### Zein da orain arte egin duzuen jarduna? Eta zein balorazio egiten duzue?

Abuztuko jaietan, San Martin plazako egitaraua antolatu genuen. Bertan, gustu guztietarako musika eskaini zen, eta mus txapelketa bat ere egin zen.

Ezin izan ditugu zenbait jarduera nahi genituen moduan edo iraganean egiten ziren bezala aurrera eramán, Lizarrako baldintza klimatikoetara egokitutako espazio publiko egokirik ez dagoelako. Urtean zehar ez dago horrelako jarduerak egiteko moduko espazio publikoren bat, eta horrek zaildu egiten du, adibidez,

lehen frontoian egiten zen futbol-jaialdiaren gisako ekintzak berriro antolatzea.

### Zenbat jardun dira euskaraz soilik?

Aurreko galderan erantzun bezala, ezin izan dugu ekintza garrantzitsurik antolatu, baina festetan euskarazko kontzertu bat programatu zen. Bestalde, komunikazio guztia bai gaztelaniaz bai euskaraz egin da, eta edozein espaziotan edo jardueratan, norbaitek euskaraz egiten badu, hizkuntza horretan aritzeko gai diren solaskideak badaude. Ez dago inolako hizkuntza-oztoporik ezta hizkuntzagatik bazterkeriarik ere; kontrakoa baizik: euskararen erabilera sustatzen da edozein espaziotan, jardueratan eta esparrutan, jai-giroan zein festatik kanpo.



## Programazioa

- 12:00** Gazteen festetako XVI suziria Koroatze plazan
- 12:30** Parkour Tailerra eta erakusketa Koroatze plazan
- 12:30** Erronda koperoa Malababa txarangarekin
- 14:15** Sinadura bilketa Lizarrako txosnen alde
- 14:30** Bazkari herrikoa San Joan plazan Euskal Parrillarekin
- 16:00** Zozketak eta bazkalosteko *Stand-Up* komedia Julen Apeztegiarekin
- 18:00** Ardo Usaie elektrotxaranga Festagirotan eta Lizarrako Txosnekin
- 20:00** Pantxo Balbuenaren kontzertua alde zaharrean

672 050 155  
**Mintzakide**  
garean@gmail.com

LIBRERIA-PAPELERIA  
**INO**  
LIBURUDENDA-PAPERDENDA  
Zapateria Kalea, 3  
Tel. 948 550 383 • ESTELLA-LIZARRA



5 hitz

Onintze  
Arrastia

## Ez dago amaierarik

Amildegi batetik erortzen nintzela amestu nuen behin.

Bueno, behin baino, askotan. Erori eta erori. Amets guztiak horrelakoak dira azken aldian. Eta amets horietatik esnatzen naizen aldiro, zera galdetzen diot neure buruari: «Nork bultzatu nau?» Ezjakintasunaren afera. Baina afera hau ez da *Onintzeren* afera, zeren eta zure afera ere izan baitaiteke; lerro xume hauek irakurtzen dituzun horrena, hain zuzen.

Uste dut hau ez dela hasierarik onena idazki baterako, baina ezjakintasunean dabilen pertsona batentzat ez dago argitasunik horren inguruan: ez dago hasierarik, ez amaierarik. Maiatza da, eta maiatza guztien gisan, amaiera bat datorrela ematen du. Aurten, ordea, ematen du ez datorrela amaierarik (eta hasierarik?).

Amildegia irudikatzeak badauka sinbolikotik haratagoko zerbait. Irudi hori ez da soilik nire ametsgaiztoan agertzen dena, bestela ez litzateke artelan guztietan ageriko (eta auskalo zein diren obra horien artisten ametsak). Salto egin edo bultzatua izan, hortan datza ezjakintasunaren afera.

Erabakitzeko ahalmenak markatzen duen erabaki korapilatsua. Salto egiteko hautua egin eta borondatearen kontrako bultzada. Txosnak jarri nahi izateko hautua eta debeku autoritarioa. Euskaraz mintzatzeko nahia eta ezintasuna. Ikasturtea garbi bukatzeko beharra eta oztopo akademikoak. Maiatza da, baina ez dago amaierarik.

Eta ekainak beharbada zebaiten hasiera esan nahi du, baina ez dago jakiterik. Jakitun gutxi batzuek soilik baitakite hori.



Euskararen memoria  
guneak Estellerrian

Bargagorria

## Lizarra Frontoia (1)

Nafarroan, aro berriko lehen ikastolak 1960ko hamarkadan abiarazi zituzten, Francoren diktaduraren garaian, eta sortu ziren gizartearen eta familien ekimenari esker, euskararen transmisioa eta hezkuntza propioa bermatzeko asmoz. Testuinguru zail eta errepresiboan jaio arren, ilusioz eta konpromisoz eraiki ziren, eta pixkanaka sare bat osatuz joan ziren.

Aipatu hamarkadaren bukaeran, Lizarrako euskaltzale batzuk mugitzen hasi ziren. Urte luzeetako isiltasunaren ondoren, euskal kulturarekiko atxikimendua zuten lizarratar asko garai hartan legezkoak ziren elkarte gutxi batzuen inguruan biltzen hasi ziren; horien artean, nabarmena zen Lizarra Mendizale Elkartea.

1969an, euskara ikasteko elkartzen hasiak ziren elkarte horretako bost kide —Julia Peruski, Jesús María Bezunartea, Luis Mari García, Josemari Etxandi eta Txomin Errazkin— amets bat lantzen hasi ziren: euskal eskola bat sortzea, Lizarrako haurrek euskaraz ikas zezaten.

Amets hura egia bihurtu zen 1970eko irailaren 29an, hogeita bost haur inguruk euskararen biderei hasiera eman ziotenean Udalak utzitako Lizarra Frontoiko gela batean.




Lizarra Ikastolako ikasleak Lizarra frontoiko eskaileretan Santa Ageda eguneko ospakizunean.

NIK BADUT IDEIAREN  
BAT IRUDIA NOLAKOA  
IZAN DAITEKEEN, SEI!



**TRUMPEK BERE ERRETRATUA  
SARTUKO DU PASAPORTE  
ESTATUBATUARRETAN.**

Presidentearen irudia  
independentziaren 250. urteurrena  
ospatzeko edizio berezi baten  
orrialdeetako batean grabatuta  
agertuko da, estatu  
departamentuak baieztatu duenez



**denborapasak**



**Bertso  
zutabea**

**KRISTALEZKO BOLA**


Egilea: **Pello Etxaniz**

Lizarran Puy jaietan  
egonik tonbola  
hor sosak gatatzea  
niri ez zait axola  
sari onik ez nuen  
egundo inola  
baina aurten tokatu zait  
kristalezko bola.

Sinetsi nahi baduzu  
gaur nire egia  
kristalean agertu  
dela irudia  
aztikeria ote da  
edota magia  
geroa ikus dezaket  
hau da gehiegia.

Aurrena ageri da  
sua eta kea  
batetik atakea  
bestetik tankea  
baina berehalaxe  
hauxe suertea  
hitz polita ageri da  
jartzen du **BAKEA**.

**Gurutzegram**



**GERRATEAK**

**Ezker eskuin**

- 2- Lizarrako gerrateak
- 5- Gerrate tokia
- 7- Arma berria
- 8- Gerrateko atsedenaldia

**Goitik behera**

- 1- Gerratean handitzen da
- 3- Gerratean babesteko
- 4- 36-39ko Gerrate ...
- 6- Odola ...

**Euskal glifoa**



